

Euskadiko gazteen % 58k bere burua ez sinesletzat du erlijioari dagokionez


Azken 18 urteetan bere burua ez sinesletzat dutenen portzentajea % 31tik % 58ra pasatu da

Aste Santua dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) euskal gizartearen bilakaerari buruzko datuak aurkeztu nahi ditu, hain zuzen ere erlijioari dagokionez biztanleek beren buruari emandako definizioaren ingurukoak.

2016an Euskadiko gazteen % 58k bere burua ateotzat, ez sinesletzat, agnostikotzat edo interesik gabekotzat du. Portzentaje horrek 27 portzentaje-puntu egin du gora 1998an jasotako % 31tik.

Igoera honen arrazoa gazte katolikoek murrizpenean (praktikanteak edo ez praktikanteak) aurki dezakegu. Haien 1998an Euskadiko gazteen %59 ziren. Gaur egun, oster, % 27 baino ez dira.


Erljio katolikoaz besteko erlijioetan sinesten duten gazteen kopuruak gora egin du atzeritarren kopuruarekin batera. Portzentaje honek gora egin du 1998ko % 1etik gaur eguneko % 8ra.



Euskadiko gazteen eta 18 urtetik gorako biztanleen datuak alderatuz gero, 2016koak beti ere, ikus dezakegu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean askoz handiagoa dela beren burua ez sinesletzat hartzen dutenen kopurua 18 urtetik gorakoekin alderatuz (% 58 eta % 34 hurrenez hurren).

Beste alde batetik, beren burua katolikotzat (praktikante zein ez praktikante) hartzen dutenen kopuruari arreta eginez gero, kontrako proportzioa antzematen dugu. Horrela, 18 urtetik gorakoekin artean % 55ek bere burua katolikotzat jotzen du (% 37k ez praktikante eta beste % 18k praktikante), baina 15 eta 29 urte bitartekoekin artean % 27k baino ez du bere burua katolikotzat (% 23k ez praktikante eta beste % 4k praktikante).

Erljioari dagokionez, 2016an Euskadiko biztanleek beren buruari emandako definizioa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 18 urtetik gorakoen arteko alderaketa (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak (gazteen kasuan) eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (18 urtetik gorakoei dagozkienak) oinarri hartuta

Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu, eta horretarako hainbat ikerketa hartu ditu aintzat: Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen datuetarako *Gazteen Argazkiak 3* (1998ko datuak), eta *Euskadiko gazteak 2008, 2012 eta 2016 (gaur egun egiten ari garena)* erabili ditu. Bestalde, Euskadiko 18 urte eta gehiagoko biztanleriarekin alderaketa egiteko Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen *60. Euskal Soziometroa Euskal iritzi publikoa 20 urtetan* ikerketa erabili dugu.